

**ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKIKO JARDUERETARAKO LANBIDE-
EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAK EMATEN DITUEN LAGUNTZEN
DEIALDIEN MARKOAREN BARRUAN, KONTRATAZIORAKO LAGUNTZEN
OINARRI ARAUTZAILEAK ETA DEIALDIA**

Hitzaurrea

2012an, Leioako Udalak Tokiko Enplegu Plana artikulatu zuen udalerriko ehundura sozioekonomikoaren enplegu beharrizanak ezagutzeko eta horiei erantzuna emateko.

Plana artikulatzeari esker, udalerriko ehundura ekonomikoko diziplina anitzeko eragileen laguntzaz, Leioako Udalak sektore nagusien gaur eguneko eta etorkizuneko beharrizanak identifikatu ditu.

Kontrataziorako laguntza hauek Tokiko Enplegu Planaren barruan sartzen dira:

MAPA ESTRATEGIKOA		
HELBURU OROKORRAK	ESTRATEGIAK	LAN ILDOAK
A. TOKIKO ENPLEGAGARRITASUNA ETA SUSTAPEN EKONOMIKOA HOBETZEKO AUKERAK SORTZEA ETA BATZEA	A.2. Enplegurako aukerak sortu eta biltzeko laguntza eta lankidetzak instituzionala.	A.2.1. Tokiko beharrizanak enplegu aukerekin lotzen dituzten proiektuak sustatzea.

Langabezia dauden pertsonen kontratazioa bultzatzeko laguntza ekonomikoen proiektua da, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak diruz lagundua, Enplegua Sustatzeko Tokiko Jardueretarako Laguntzen deialdiaren barruan.

Bestalde, Leioako Udala bereziki sentsibilizatuta dago gazteen langabezia murriztearekin, gizartearentzat ere erronka nagusietarikoa izanik. Zehazki, udalerrian, langabezia tasaren %24,09, 35 urtetik beherakoei dagokie. Hori dela-eta, oinarrizkoa irizten zaio kolektibo honen enpleguratzeko sustatzeari.

1. ARAUDI APLIKAGARRIA

Oinarri hauetan ezartzen diren kontrataziorako laguntzen babes diren araudi eta xedapenak honakoak dira:

- 2016ko ekainaren 15eko ebazpena, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Horren bidez argitaratzen da enplegua sustatzeko tokiko jardueretarako laguntzen deialdia (16/06/16ko EHAA).
- Azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra (03/11/18ko BOE).
- Ekainaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Diru-laguntzen Lege Orokorrari dagokion Erregelamendua onartzen duena (06/07/25eko BOE).
- Leioako Udalak ematen dituen diru-laguntzak arautzeko oinarriak onartzen dituen ordenantza orokorra. (13/02/11ko BAO).
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendaria nagusiaren ebazpena, 2016ko abuztuaren 12koa, Leioako Udalarentzako dirulaguntza onartzen duena, enplegua sustatzeko tokiko ekintzak burutzeko dirulaguntzen deialdiaren babespean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Kontseiluaren erabakiz onartua 2016ko ekainaren 15ean.
- 2016ko azaroaren 14ko 2649 Alkatetza Dekretua, kontrataziorako laguntzen (2. Tipologia) oinarri arautzaileak eta deialdia arautzen dituen, enplegua sustatzeko tokiko jardueretarako Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ematen dituen laguntzen deialdien markoaren barruan.

2. LAGUNTZAREN XEDEA ETA ZENBATEKOA

Oinarri hauen xedea da honako deialdi hau arautzea: tokiko enpresentzako laguntza ekonomikoak Lanbiden lan eskatzaile bezala inskribatuta dauden langabetuak kontratatzea ahalbidetzeko. Hori guztia, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak Enplegua Sustatzeko Tokiko Jardueretarako dituen Laguntzen deialdiaren barruan.

Kontratazioek, diru-laguntza jasotzeko, honako ezaugarri hauek izan behar dituzte:

- Kontratuen gutxieneko iraupena 3 hilabetekoa izango da, jardunaldi osoz.

- Diruz lagunduko da edozein kontratazio mota, prestakuntza eta ikasketarako kontratua izan ezik.
- 2016ko ekainaren 16 eta azaroaren 30a bitartean sinatutako kontratuak diruz lagunduko dira.
- Kontratutakoek langabetuak izan behar dute eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan inskribatuta egon enplegu eskatzaile gisa.

Emango diren diru-laguntzen gehieneko zenbatekoa hau izango da:

- 1) Gehienez, **3.000 euroko** diru-laguntza **hiru hilabete** irauten duen jardunaldi osoko kontratu bakoitzeko, eta gehienez, **6.000 euroko** diru-laguntza **sei hilabete edo gehiago** irauten duen jardunaldi osoko kontratu bakoitzeko. Hiru eta sei hilabete arteko kontratazioen kasuan, diru-laguntza lan egindako denborarekiko proportzionala izango da.

Edozein kasutan ere, diru-laguntzaren azken zenbatekoa **ezin izango da** kontratatutakoaren **soldata-kostuen eta gizarte segurantza kostuen %75etik gora egon.**

- 2) Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta kobratzen dutenak; lehen enplegua lortzen duten 35 urtetik beherakoak; eta azken 18 hilabeteotan, Lanbiden inskribatuta, 12 hilabetez langabezian izan direnak kontratatuz gero, diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa **9.000 eurokoa** izango da, **sei hilabete edo gehiago** irauten duen jardunaldi osoko kontratu bakoitzeko. Hiru eta sei hilabete arteko kontratazioen kasuan, diru-laguntza lan egindako denborarekiko proportzionala izango da.

Edozein kasutan, diru-laguntzaren azken zenbatekoa **ezin izango da** kontratatutakoaren **soldata-kostuen eta gizarte segurantza kostuen %100etik gora egon**, kontratu bukaerako indemnizazioak barne harturik.

3. ONURADUNAK

Deialdi honetan jasotako laguntzen onuradun izan ahalko dira besteren konturako langileekin kontratuak sinatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak, euren forma juridikoa edozein izanik ere, betiere honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- 1.- Erakunde eskatzaileak helbide soziala Leioan izan behar du. Baldintza hori ofizioz egiaztatuko da.

- 2.- Langilea(k) kontratatzeak enplegu sorrera garbia ekarri beharko du diruz laguntzen den/diren pertsona kontratatua/k sartu eta aurreko hiru hilabeteetan enpresan izan den batez besteko langile zerrendarekiko.
- 3.- Ez da kontratatzeko diru-laguntzarik emango enpresaburuaren, enpresa-zuzendarien eta sozietateen izaera juridikoa duten enpresen administrazio-organoetako kide diren pertsonen ezkontideak, ondorengoak eta gainerako senideak kontratatzeko, baldin eta haiekin bigarren mailara arteko odolkidetasunezko edo afinitatezko harremana badute, ezta hasieran adierazitako pertsona horiek kontratatzeko ere.
- 4.- Herri Administrazioarekiko (Foru Ogasuna, Gizarte Segurantza eta Udal hau) obligazioak beteta izatea.
- 5.- Diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko ezintasuna dakarren zehapen penal nahiz administratiborik ez izatea eta horiek eskuratzeko legezko debekurik ez izatea.
- 6.- Diru-laguntzak erakunde onuradunei esleitzeko, eta, hala dagokionean, ordaintzeko baldintza izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta haren erakunde autonomiadunek izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan erakunde horiekiko abiarazi dituen itzultze edo zehazpen-prozedurak bukatzea, baldin eta une horretan oraindik izapidetze-fasean baldin badaude.

4. LAGUNTZA MOTAK ETA ZENBATEKOA

Emango diren diru-laguntzen zenbateko osoa eta horiek finantzatzeko aurrekontu-kredituak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendariaren 2016ko abuztuaren 12ko Ebazpenean zehaztutakoak dira, Leioako Udalarentzako diru-laguntza onartzen duen ebazpena, enplegua sustatzeko tokiko ekintzak burutzeko diru-laguntzen deialdiaren babespean. Ildo horretan, deialdi hau garatzeko, Leioako emandako diru-laguntzaren zenbatekoa 76.035,05 eurokoa da.

Horrekin ados, 2.3.2.5 artikulua ezartzen du tokiko erakundeek bermatu behar dutela, gutxienez, kontratuen **%40 emakumeei** egingo zaizkiela, eta 2.1.f) artikulua ezartzen du, gutxienez, diru-laguntza eskatzen den jarduketa guztiak aintzat hartuta, kontratatutakoen **%15ek 55 urtetik gorako langabetuak** izan behar dutela, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan inskribatuak.

Zentzu horretan, aurreko premisak kontuan hartuta, honako laguntza hauek emango dira:

- A. Gehienez, **6.000 euroko 3** diru-laguntza **sei hilabete edo gehiago** irauten duen jardunaldi osoko kontratu bakoitzeko, **sexua edozein delarik** ere.
- B. Gehienez, **6.000 euroko 2** diru-laguntza **sei hilabete edo gehiago** irauten duen eta **emakumeei** eginiko jardunaldi osoko kontratu bakoitzeko.
- C. Gehienez, **3.000 euroko 2** diru-laguntza **3 hilabete** irauten duen jardunaldi osoko kontratu bakoitzeko, **sexua edozein delarik** ere.

Kontratazioak 3 eta 6 hilabete bitartean iraungo balu, diru-laguntza lan egindako denborarekiko proportzionala izango da, eta gehienez, 6.000 euro emango dira.

- D. Gehienez, **3.000 euroko** diru-laguntza **bat, 55 urtetik gorako pertsona bati eginiko eta 3 hilabete** irauten duen jardunaldi osoko kontratu bakoitzeko, **sexua edozein delarik** ere.

Kontratazioak 3 eta 6 hilabete bitartean iraungo balu, diru-laguntza lan egindako denborarekiko proportzionala izango da, eta gehienez, 6.000 euro emango dira.

- E. Gehienez, **3.000 euroko 2** diru-laguntza **3 hilabete** irauten duen eta **emakumeei** eginiko jardunaldi osoko kontratu bakoitzeko.

Kontratazioak 3 eta 6 hilabete bitartean iraungo balu, diru-laguntza lan egindako denborarekiko proportzionala izango da, eta gehienez, 6.000 euro emango dira.

A, B, C, D eta E modalitateetako kontratazioen diru-laguntzaren azken zenbatekoa **ezin izango da kontratatutakoen soldata-kostuen eta gizarte segurantza kostuen %75etik gora egon**, kontratu bukaerako indemnizazioak barne.

- Halaber, diru-laguntzak aurreikusten dira **enpleguratzeko arazo bereziak dituzten kolektiboetakoentzat**, hauexek alegia:
 - Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen dutenak.
 - Lehen enplegua lortzen duten 35 urtetik beherakoak.

- Kontratazioa baino lehenagoko 18 hilabeteetan, Lanbiden inskribatuta, gutxienez, 12 hilabetez langabezia izan direnak.

Horretako, honako diru-laguntza hauek emango dira:

- F. Gehienez, **9.000 euroko** diru-laguntza **bat sei hilabete edo gehiago** irauten duen jardunaldi osoko kontratu bakoitzeko, **sexua edozein delarik** ere.
- G. Gehienez, **9.000 euroko** diru-laguntza **bat sei hilabete edo gehiago** irauten duen eta **emakume bati** eginiko jardunaldi osoko kontratu batengatik.
- H. Gehienez, **4.500 euroko** diru-laguntza **bat hiru hilabete** irauten duen eta **emakume bati** eginiko jardunaldi osoko kontratu batengatik.

Kontratazioak 3 eta 6 hilabete bitartean iraungo balu, diru-laguntza lan egindako denborarekiko proportzionala izango da, eta gehienez, 9.000 euro emango dira.

- I. Gehienez, **4.500 euroko 2** diru-laguntza 3 hilabete irauten duen eta **55 urtetik gorako pertsoneri** eginiko jardunaldi osoko kontratu bakoitzeko, sexua edozein delarik ere.

Kontratazioak 3 eta 6 hilabete bitartean iraungo balu, diru-laguntza lan egindako denborarekiko proportzionala izango da, eta gehienez, 9.000 euro emango dira.

F, G, H eta I modalitateetako diru-laguntzaren azken zenbatekoa ezin izango da kontratatutako **soldata-kostuen eta gizarte segurantzakostuen %100etik** gora egon, kontratu bukaerako indemnizazioak barne harturik.

5. EMAKIDA PROZEDURA

1. Leioako Behargintzak tramitatuko ditu eskabideak: Mendibil 3, 48940 Leioa. Tel.: 944008051. E-posta: behargintza@leioa.net.
2. Diru-laguntzak norgehiagoka prozeduraren bidez emango zaizkie baloraziorik altuena lortzen duten eskatzaileei, honako balorazio-irizpide hauei jarraiki:

Gehienez 30 puntu eskura daitezke honako aspektu hauekin, eta bakoitzari, jarraian zehazten zaion gehienezko puntuazioa emango zaio:

- a) **Leioan erroldatutako pertsonak kontratatzea:** 10 puntu
- b) 2015 edo 2016an zehar, **gazte enplegurako dinamizazio edo trebatze programaren** batean parte hartu duten **18 eta 35 urte bitartekoak kontratatzea:** 5 puntu.
- c) **Enpresaren tamaina.** Gehienez, 10 puntu emango dira entitate eskatzailearen tamainaren arabera:
 - Bost langile baino gutxiago: 10 puntu
 - 5 eta 25 langile bitartean: 5 puntu
 - 25 langile baino gehiago: 0 puntu
- d) **Enpresa sortu berrien kontratazioak.** Sortu berriak izango dira Jarduera Ekonomikoen Zergan alta ematea eskatu dutenak 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera: 5 puntu.

Diru-laguntza hauek emango zaizkie proiektuan puntuaziorik altuena erdiesten duten entitateei. Proiektu batek baino gehiagok azken balorazio berbera lortuko balute, a) atalean punturik gehien daukana lehenetsiko da. Berdinketa ez balitz horrela desegingo, b) atalean punturik gehien duena lehenetsiko da. Horrela egingo da, segidan, berdinketa desegin arte.

Berdinketa ez bada desegiten, lehenetsiko da, eskabidea aurkezteko unean, langile-zerrendan desgaitasunen bat duten pertsona gehiago dituen entitatearen proposamena. Hala ere, berdinketa desegingo ez balitz, lehenetsiko da langile zerrendan desgaitasunen bat duten pertsona finko gehiago dituen entitatea.

3. Eskabideak aurkezteko epea amaituta, instrukzio organoak, Behargintzako teknikariz osatuta, egiaztatuko du onuradun izateko baldintzak betetzen ote diren, aurkeztutako eskabideak eta dokumentazioa aztertuz.

Eskabideak ez badaude behar bezala beteta edo oinarri hauetan eskatzen den dokumentazio guztia ez badaukate, pertsona edo entitate interesdunari bost lan eguneko epea emango zaio akatsak zuzentzeko edo falta diren agiriak entregatzeko, eta beren-beregi jakinaraziko zaio, hala egin ezean, eskabidea baliogabetuko dela urriaren 1eko 39/2015 Legeko, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, 68.1. artikuluaaren terminoen arabera idatzitako ebazpen bidez.

Instrukzio organoak eskatzaileen zerrenda, aurre-ebaluazio faseko jarduerak, horien emaitzak, eta baztertuta geratu direnen zerrenda (baztertua izateko arrazoia zehaztuz) batzen dituen txostena egingo du.

4. Kide anitzeko organoa honako kide hauek osatuko dute:
- Presidentea: alkatea edo berak eskuordetutako zinegotzia.
 - Bokalak: hiru izango dira. Funtzionario, lan-kontratudun edo zinegotzien artean izendatuko ditu organo emaileak.
 - Idazkaria: hitz egin dezake, baina botorik gabe. Udal langile bat izango da.

Kide anitzeko organoak aztertuko ditu, instrukzio organoak eginiko txostenaren arabera, aurre-ebaluazio fasea igaro duten eskabideak, eta espedienteak baloratuko ditu oinarri hauen 6.2 epigrafean zehaztutako irizpideen arabera.

Kide anitzeko organoak ebaluazio txostena egingo du. Bertan, eskatzaileen zerrenda erantsiko da, lortutako osoko puntuazioaren arabera ordenatuta, puntuazio altuenetik txikienera, eta puntuazio partzialak zehaztuz, balorazio irizpideen arabera.

5. Instrukzio organoak, kide anitzeko organoaren espedientea eta ebaluazio txostena ikusirik, behin betiko ebazpen proposamena egingo dio emakida egiten duen organoari.
6. Oinarri arautzaile hauetan aurreikusten diren diru-laguntzen emakidak honako printzipio hauek bermatuko ditu: publizitatea, norgehiagoka eta objektibotasuna.

6. AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA

Diru-laguntzaren eskaera oinarri arautzaile hauen 8. atalean azaldutako prozeduraren bitartez aurkez daiteke, oinarriak Leioako Udalaren web gunean argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Diru-laguntzaren eskabideak, beharrezkoa den dokumentazioarekin batera, Udal Erregistro Nagusian (Elexalde 1 helbidean) edo Leioako Behargintzan (Mendibil 3 helbidean) aurkeztuko dira (Leioako Posta Kutxatila: 48940). Bulego bien arreta ordutegia astelehenetik ostiralera bitartekoa da, 8:30etik 14:30era.

Dokumentazioa aurkezteko beste modu bat urriaren 1eko 39/2015 Legeko, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, 16.4 artikulua aurreikusten duena da.

Eskabidea Correoseko bulegoan aurkeztuz gero, Posta Zerbitzuak arautzen dituen 1829/1999 Errege Dekretuko 31. artikulua dioena bete beharko da:

*“herritarrek edo erakundeek posta zerbitzu orokorra erabiltzen dutenean administrazio publikoei eskariak, idatziak eta jakinarazpenak bidaltzeko, **gutun-azala irekita** aurkeztu beharko dute posta bulegoan, **bidali nahi duten dokumentuaren lehen orriko goiburuan posta zerbitzukoek argi eta garbi adieraz ditzaten bulegoaren izena eta bidalketaren lekua, eguna**, ordua eta minutua. Datu horiek, eskabidea onartu dela ziurtatzen duen frogagirian agertu beharko dute”.*

Aurkeztutako eskabidean, Correosek ez badu jarri agiria zein egunetan eta lekutan hartu den, ondore guztietarako aurkezpen datatzat joko da Udal Erregistroko sarrera-data.

Eskabideak aurkezteko epea **2016ko abenduaren 15ean** amaituko da, aintzat harturik kontratazioak gauzatzeko epea 2016ko ekainaren 16tik eta azaroaren 30era bitartekoa izango dela.

Diru-laguntza hauetarako aurrekontua agortuko ez balitz, Leioako Udalak deialdi berria egin ahal izango du, eta eskabideetarako epea luzatu.

7. ESKABIDEAK ETA DOKUMENTAZIOA

1.- Oinarri hauetan jasotako laguntza eskuratzeko eskabidea Leioako Udalaren eta Leioako Behargintzaren web orrietan eskuragarri dagoen (www.leioa.eu eta www.leioako-behargintza.net) deialdi honen eredu ofizialaren arabera aurkeztu beharko da.

2.- Eskabide orria aurkeztu beharko da (I. Eranskina), eta horri, honako agiri hauek erantsi:

ENPRESARI BURUZKO DOKUMENTAZIOA:

a) **I. Eranskinako** eskaera orria, datu hauek jasotzen dituen:

- Eskatzailearen datuak
- Eskatutako laguntza mota
- Enpresari buruzko agiri orokor erantsiak.
- Kontratutako pertsonei buruzko agiri orokor erantsiak.
- Kontratutako pertsonei buruzko agiri berezi erantsiak.

- Kontratuen lehentasun hurrenkera (bi diru-laguntza eskatuz gero)
 - Kontratuaren deskribapena
- b) IFKren eta enpresaren eraketako eskrituren fotokopia.
- c) Entitate eskatzailearen ordezkari legal denaren NAN fotokopia, eta ordezkariaren ahalorde-eskritura.
- d) Kontratututako pertsonak sartu baino lehenagoko hiru hilabeteetan egon den langile-zerrendaren batez bestekoari buruzko ziurtagiria, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak eginikoa.
- e) Ordainketak egunean daudela egiaztatzen duen Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak eginiko ziurtagiria.
- f) Bizkaiko Foru Ogasunean ordainketak egunean daudela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- g) Jarduera Ekonomikoen alta agiria.
- h) EAEko Administrazioak edo bere Erakunde Autonomoek emandako laguntzen markoan hasitako diru-itzultze edo zigor prozeduraren batean ez dagoela aitortzen duen zinpeko adierazpena, enpresako legezko ordezkariarena. Halaber, aitorten horren esan behar du diru-laguntzarik jaso edo galtzeko prozesuren batean ez dagoela, ezta sexu bazterkeriagatik zigor administratibo edo penalik ez duela ere. **II. Eranskinaren arabera.**
- i) Kontratututako pertsonak enpresaburuaren, enpresa-zuzendarien eta sozietateen izaera juridikoa duten enpresen administrazio-organoetako kide diren pertsonen ezkontide, ondorengo eta gainerako senideekin bigarren mailara arteko odolkidetasunezko edo afinitatezko harremanik ez duela dioen zinpeko adierazpena, enpresako legezko ordezkariarena. **III. Eranskinaren arabera.**
- j) Diruz lagunduko diren kontratuan/kontratuetan gain-finantzaketarik ez dagoela egiaztatzen duen zinpeko adierazpena, enpresako legezko ordezkariarena. **IV. Eranskinaren arabera.**

KONTRATATUTAKO PERTSONARI BURUZKO DOKUMENTAZIOA:

Entitate eskatzaileak eskaera bakarra aurkeztu beharko du, eta bi kontratazio badira, bien arteko lehentasuna adierazi. Enpresa bakoitzari ez zaio eskaera bat baino gehiago onartuko. (Aurkeztutako I. Eranskinarekin ados).

DOKUMENTAZIO OROKORRA:

- a) Kontratatutako pertsonaren NAN edo identitatea egiaztatzen duen agiriaren fotokopia.
- b) Lan kontratuaren fotokopia.
- c) Kontratatutako langilea Gizarte Segurantzaren alta eman deneko ziurtagiria.

DOKUMENTAZIO BEREZIA:

- d) Kontratatutako pertsona 35 urtetik beherakoa dela eta bere lehen enplegua dela egiaztatzeko: Gizarte Segurantzak eginiko ezezko afiliazio txostena.
- e) Kontratazioa baino lehenagoko 18 hilabeteetan, Lanbiden inskribatuta, gutxienez, 12 hilabetez langabezian izan direnak: Lanbidek eginiko ziurtagiria egoera hori ziurtatuz.
- f) Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta kobratzen dutenen kontratazioa dela-eta, ez da agiri berezirik aurkeztu behar, nahiko da I. Eranskineko gelaxka markatzearekin eta ofizioz egiaztatuko da.
- g) Kontratatutako pertsonak, 2015 edo 2016an, gazte enplegurako dinamizazio eta trebatze programaren batean parte hartu dueneko agiria.

Enpresa interesdunak ez badu eskabidea behar bezala betetzen edo harekin batera ez baditu bidaltzen nahitaezko dokumentu guztiak, Leioako Udalak eskatuko dio, hamar lan-eguneko epean, hutsegitea zuzentzeko edo nahitaezko dokumentuak aurkezteko. Halaber, jakinaraziko zaio, hori egin ezean, eskabidea ezetsi egingo dela. Kasu horretan, Administrazioak beren-beregiko ebazpena eman beharko luke eta interesdunari jakinarazi, urriaren

1eko 39/2015 Legeko, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, 21 eta 68.1 artikuluetan ezarritakoarekin ados.

3.- Gehienez, 2 kontratazio jaso ditzakeen eskabide bakarra onartuko da entitate bakoitzeko, laguntza guztiak betetzen ez badira salbu, hau da, aurrekontua agortzen ez bada.

8. EBAZPENA

Alkateak emakidarako ebazpena egingo du, behin-betiko ebazpen proposamena ikusirik, gehienez, 3 hilabeteko epean, eskabideak aurkezteko epea bukatu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Emakidarako ebazpenak, erabakia arrazoitzeko, oinarri arautzaileak eta deialdiaren baldintzak betetzen dituela esango du, eta edozein kasutan, honako hauek zehaztuko ditu:

- Pertsona edo entitate onuradunak edo diru-laguntza ematen zaien onuradunen zerrenda, zenbatekoak banaka zehaztuz, balorazio irizpideak aipatuz eta diru-laguntzaren helburu den kontratazioa zein den esanez. Halaber, emakidarako ebazpenak atzera botatako eskatzaileen zerrenda erakutsiko du, arrazoiketa eginez, baita gaitzetsi direnak ere, edo eskubideari uko egin diotenak edo bat-bateko ezintasun materialagatik jaso ez dutenak.
- Onuradunek onartutako konpromisoak.
- Ebazpenean agertuko da, baldintza administratiboak eta teknikoak bete arren, diru-laguntza jasoko ez dutenen zerrenda, euren balorazioa hautatutakoena baino baxuagoa delako eta deialdiko gehienezko zenbatekoan ez direlako sartzen. Onuradun izango ez diren horiek puntuazio altuenetik baxuenera ordenatuta egongo dira.

Baiezko erantzuna jasotzen duen eskabide kopurua Lanbidek Leioako Udalarari esleitutako aurrekontuaren menpe egongo da, Leioako Udala Entitate Laguntzailea baita, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendariaren 2016ko abuztuaren 12ko Ebazpenaren arabera. Aurrekontu hiru 76.035,05 eurokoa da.

Hiru hilabeteko epea egongo da Emakidarako Ebazpena egiteko, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta biharamunetik zenbatzen hasita. Behin prozedura ebatzita, interesdunek emakidarako ebazpenaren beren beregiko jakinarazpen indibiduala jasoko dute.

Oinarri hauetan aurreikusitako laguntzen emakidak publizitate, norgahiagoka eta objektibotasun printzipioak gordeko ditu.

9. DIRU-LAGUNTZA ZURITZEA ETA ORDAINTZEKO MODUA

Diruz laguntzen den epea amaiturik, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da laguntza justifikatzeko, gehienez, bi hilabeteko epean:

- 1.- Diru-laguntzaren helburu den kontratazio epeari dagozkion nominen kopia.
- 2.- Diru-laguntzaren helburu den kontratazio epean, nominak kobratu egin direla ziurtatzen duen bankuaren agiria.
- 3.- Diru-laguntzaren helburu den kontratazio epeari dagokion TC2.
- 4.- Kontratazio aldiko soldata kostuei buruzko ziurtagiria.
- 5.- Beste edozein administrazio edo entitatek, publikok zein pribatuk, helburu berbererako ematen dituen diru-laguntzak edo laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak lortzeari buruzko zinpeko adierazpena.

Laguntzak ordainketa baten gauzatuko dira, diru-laguntza betetzen dela justifikatu eta hilabeteko epean, gehienez.

10. ENTITATE ONURADUNEN BETEBEHARRAK

1. Laguntzen enpresa onuradunek 2016ko ekainaren 16 eta azaroaren 30a bitartean gauzatu beharko dituzte kontratazioak.
2. Emandako laguntza onartu beharko dute. Zentzu horretan, laguntzaren emakidarako jakinarazpena jasotzen den egunetik, hamabost eguneko epean, onuradunak ez badio beren-beregi eta idatziz uko egiten, onartu egiten dela ulertuko da, bai aspektu ekonomikoari dagokionez, bai ebazpenean jasotzen diren gainerako baldintzei dagokienez, baita deialdi honetakoei dagokienez ere.
3. Edozein kasutan, enpresa kontratatzaileak Udalarari eman beharko dio diru-laguntza justifikatzeko beharrezko litzatekeen edozein informazio, diruz laguntzen den epean kontratatutako pertsona mantentzearekin, soldata kostuarekin eta Gizarte Segurantzaren kostuarekin lotutakoa.

4. Enpresa onuradunak Udalari jakinarazi beharko dio diru-laguntza emateko aintzat hartu den edozein egoeraren aldaketa.
5. Diru-laguntza justifikatzeko dokumentazioa bi hilabeteko epean aurkeztu beharko du, diruz laguntzen den kontratazio epea amaitzen denetik zenbatzen hasita. Epe horretan justifikatzen ez bada, emandako diru-laguntza guztia edo partzialki galtzea suposa dezake.
6. Entitate onuradunek beren beregi jaso beharko dute Leioako Udalaren eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren babesaren deialdi honen arabera finantzatutako jarduera guztietan, baldin eta hedatu, zabaldu edo argitaratu behar badira.

Diruz lagundutako jardueraren izaeragatik ez badagokio hedatu, zabaldu edo argitaratzea, logotipoak ez dira jarri behar izango diruz lagundutako entitatearen beste agiri batzuetan, akatsik edo nahasmendurik gerta ez dadin Leioako Udalaren eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren laguntzaren nondik norakoen gainean.

11. BESTE LAGUNTZA EDO DIRU-LAGUNTZA BATZUK ALDI BEREAN JASOTZEA

Deialdi honetan jasotako laguntza ez da bateragarria beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek kontzeptu eta helburu bererako ematen duten beste edozein laguntza, diru-laguntzarekin, Gizarte Segurantzaren hobariak kenduta.

Hori dela-eta, beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek kontzeptu eta helburu bererako ematen duten beste edozein laguntza, diru-laguntza edo diru-sarrera lortu bada, Udal honi jakinarazi egin beharko zaio.

12. DIRU-LAGUNTZAREN HAUSTEAK ETA ALDAKETAK

Diruz laguntzen den epea amaitu baino lehen, lan kontratuak iraungitzen badira, emandako diru-laguntza baliogabetuko da, iraungitzea entitate kontratugilearen borondatearen menpe ez dauden arrazoiengatik izan ez bada. Azken kasu horretan, lan kontratuaren benetako iraupenaren arabera, diru-laguntzaren murrizketa egingo da.

Diru laguntzak emateko orduan, kontuan hartutako baldintzaren bat aldatuz gero, eta edozein kasutan, helburu bererako ematen den beste edozein

laguntza edo diru-laguntza jaso dela antzematen bada, emandako diru-laguntza aldatu edo baliogabetuko da.

Baldintzak aldatzetik eratortzen baldin bada diru-laguntza osoa edo parte bat itzuli behar dela, dirua itzultzeko prozedurari hasiera emango zaio.

13. ERREKURTSOAK

Emakidarako ebazpenak bide administratiboari amaiera ematen dio. Horren aurka, ebazpena egin zuen organoaren aurrean, berraztertze errekurtsoa jar daiteke hilabeteko epean, ebazpenaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik zenbatzen hasita, edo administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke, bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Epaitegian.

14. DATU PERTSONALEN BABESA

Diru-laguntza eskaera aurkeztuz gero, entitate eskatzaileak adierazten du ados dagoela deialdiko baldintza guztiekin eta horiek betetzen dituela.

Halaber, adierazten du eskaeran jasotako datu pertsonalak bere baimenarekin batu direla eta onartzen duela datuon tratamendu automatizatua, baita horiek sartzea udalak behar bezala baimendutako fitxategietan. Baimena ematen du, baita ere, datuok udal kudeaketarako bakarrik erabiltzeko, eta beste Herri Administrazio eta beren mendeko erakundeei utzi edo jakinarazi ahal izango zaizkie Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak ezarritako kasuetan.

J. ERANSIKA-ESKAERA

ANEXO I – SOLICITUD

Kontratazioa sustatzeari begirako laguntzak, enplegua sustatzeko tokiko ekintzak burutzeko diru-laguntzen deialdiaren barruan, 2016ko ekainaren 15eko Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Kontseiluaren ebazpenez arautua (2016/06/16ko EHAA) eta 2016ko azaroaren 14ko 2649 Alkatetza Dekretua

Ayudas dirigidas a impulsar la contratación en el marco de la convocatoria de ayudas para acciones locales de promoción del empleo regulado por resolución de 15 de junio de 2016, del director general de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo (BOPV 16/06/2016) y Decreto de Alcaldía nº 2649 del 14 de Noviembre de 2016.

ESKATZAILEAREN DATUAK / DATOS DEL SOLICITANTE:

Izen-abizenak Nombre y apellidos		NAN D.N.I.
Bere izenean ala enpresaren izenean (adierazi eskumenak eta erakundearen izena) En nombre propio o de la empresa (señalar facultades y nombre de la entidad)		IFK CIF
Helbidea Domicilio		Udalerrria Municipio
PK C.P.	Lurraldea Territorio	Tel.: - - -
E-mail:		

ESKATUTAKO LAGUNTZA MOTA

5. artikuluaren arabera

(Jarri X aurkeztutako agirian)

TIPOLOGÍA DE LA AYUDA SOLICITADA

Según art. 5

(Marcar con una X la documentación presentada)

A	B	C	D	E
F	G	H	I	

ENPRESARI BURUZKO DOKUMENTAZIO OROKOR ERANTSIA (X batekin markatu aurkeztutakoa)

DOCUMENTACIÓN GENERAL ANEXA RELATIVA A LA EMPRESA (Marcar con una X la documentación presentada)

- IFKren eta enpresaren eraketako eskrituren fotokopiak** / Fotocopia del CIF y de las escrituras de constitución de la empresa.
- Entitate eskatzailearen ordezkari legalaren NAN fotokopia eta dagokion ahalduzte eskritura** / Fotocopia del DNI del representante legal de la entidad solicitante y en su caso, escritura de apoderamiento.
- Enpresaren lan-bizitzako txostena, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrek eginikoa, kontratatutako pertsonak lanean hasi baino aurreko hiru hilabeteetako** / Informe de vida laboral de la empresa expedido por la Tesorería General de la Seguridad Social referido a los tres meses inmediatamente anteriores a la incorporación de las personas contratadas.
- Ordainketak egunean daudela egiaztatzen duen Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrek eginiko ziurtagiria** / Certificado de la Tesorería General de la Seguridad Social de estar al corriente de pagos.
- Bizkaiko Foru Ogasunean ordainketak egunean daudela egiaztatzen duen ziurtagiria** / Certificado de estar al corriente de pagos en la Hacienda Foral de Bizkaia.
- Jarduara Ekonomikoen alta** / Alta en Actividades Económicas
- II. Eranskina** / Anexo II
- III. Eranskina** / Anexo III
- IV. Eranskina** / Anexo IV

KONTRATATU DENARI BURUZKO DOKUMENTAZIO OROKOR ERANTSIA (X batekin markatu aurkeztutakoa)

DOCUMENTACIÓN GENERAL ANEXA RELATIVA A LA PERSONA CONTRATADA (Marcar con una X la documentación presentada)

- NAN edo nortasuna egiaztatzen duen agiriaren fotokopia** / Fotocopia del DNI o documento acreditativo de la persona contratada.
- Lan kontratuaren fotokopia** / Fotocopia del contrato de trabajo
- Gizarte Segurantzako alta ziurtagiria** / Certificado de alta en la Seguridad Social.

KONTRATATU DENARI BURUZKO DOKUMENTAZIO ZEHATZ ERANTSIA (X batekin markatu egoki dena)

DOCUMENTACIÓN ESPECÍFICA ANEXA RELATIVA A LA PERSONA CONTRATADA (Marcar con una X lo que corresponda)

- **Lehen enplegua lortzen duten 35 urtetik beherakoen kasuan** / En el caso de personas

menores de 35 años que accedan a su primer empleo:

- Gizarte Segurantzak eginiko afiliazio-txosten negatiboa** / Informe negativo de afiliación expedido por la Seguridad Social.
- **Kontratazioa baino lehenagoko 18 hilabeteetan, Lanbiden inskribatuta, gutxienez, 12 hilabetez izan direnak** / En el caso de personas que hayan estado inscritas en Lanbide al menos 12 meses en los 18 meses anteriores a la contratación:
 - Lanbidek eginiko ziurtagiria egoera hori ziurtatuz** / Certificado expedido por Lanbide-Servicio Vasco de Empleo acreditando esta situación.
- **DBE kobratzen duten pertsonarik kontratatzen bada** / En el caso de contratación de personas perceptoras de RGI:
 - Ofizios egiaztatuko da. X batekin markatu bakarrik egoera hori ematen bada** / Esta circunstancia se comprobará de oficio. Simplemente marcar con una "X" si se da la situación.
- **2015 edo 2016an zehar, gazte enplegurako dinamizazio edo trebatze programaren batean parte hartu duten 18 eta 35 urte bitartekoak kontratatzea** / Contratación de personas entre 20 y 35 años que han participado a lo largo de 2015 o 2016 en algún programa de dinamización y capacitación del empleo juvenil
 - Programaren erakunde sustatzaileak egindako ziurtagiria** / Documentación acreditativa de su participación por parte de la entidad promotora del programa

KONTRATUEN LEHENTASUNA. BI PERTSONA KONTRATATZEKO DIRULAGUNTZA ESKATUZ GERO:

ORDEN DE PRIORIDAD DE LOS CONTRATOS, PARA EL SUPUESTO DE QUE SE SOLICITE SUBVENCIÓN PARA LA CONTRATACIÓN DE 2 PERSONAS:

1.
2.

KONTRATUAREN DESKRIBAPENA (1) (Jarraian, egin den edo egingo den kontratuaren ezaugarriak zehaztu)

DESCRIPCIÓN DEL CONTRATO (1): (Señalar a continuación las características del contrato realizado o previsto realizar)

- **Hasiera data** / Fecha de inicio:
.....
- **Bukaera data** / Fecha de finalización:.....
- **Kontratu mota** / Tipo de contrato:
.....
- **Kontratu-aldiko soldata kostuak** / Costes salariales del período del contrato:
.....

- **Kontratu-aldiko Gizarte Segurantzaren kostuak** / Importe del coste de la seguridad social del período del contrato:

.....

KONTRATUAREN DESKRIBAPENA (2) (Jarraian, egin den edo egingo den kontratuaren ezaugarriak zehaztu)

DESCRIPCIÓN DEL CONTRATO (2): (Señalar a continuación las características del contrato realizado o previsto realizar)

- **Hasiera data** / Fecha de inicio:

.....

- **Bukaera data** / Fecha de

finalización:.....

- **Kontratu mota** / Tipo de contrato:

.....

- **Kontratu-aldiko soldata kostuak** / Costes salariales del período del contrato:

.....

- **Kontratu-aldiko Gizarte Segurantzaren kostuak** / Importe del coste de la seguridad social del período del contrato:

.....

Lekua eta data / Lugar y fecha:

.....

Izenpetua / Firmado:

Leioako Udaleko Alkate-udalburua
Alcaldesa-Presidenta del Ayuntamiento de Leioa

OHARRA: Datu Pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikuluan adierazitakoa betez, jakinarazi nahi dizugu inprimaki honetan adieraziko dituzun datuak eskaeraren gaineko izapideak egingo dituen zerbitzuaren datu-fitxategi batean erregistratuko direla; horren helburua aurkeztutako eskaerari erantzutea da; informazioa dagokion Arloko langileek jasoko dute eta fitxategiaren arduraduna Leioako Udala izango da.

NOTA: En cumplimiento de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, se le informa de que los datos que incluirá en este impreso se registrarán en el fichero de datos de los servicios que tramitan la solicitud, y que su finalidad es la de facilitar la atención de la petición presentada; que los destinatarios de la información serán los empleados del servicio correspondiente; y que el responsable del fichero es el Ayuntamiento de Leioa.

II. ERANSKINA – ZINPEKO ADIERAZPENA: ITZULTZE EDO ZEHAZPEN- PROZEDURARIK ZABALIK EZ EDUKITZEA, ZIGOR ADMINISTRATIBO EDO PENALIK EZ EDUKITZEA DIRU-LAGUNTZARIK LORTZEKO, EDO ZIGOR ADMINISTRATIBO EDO PENALIK EZ EDUKITZEA SEXU BAZTERKERIAGATIK

Enplegua sustatzeko tokiko jardueretarako Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ematen dituen laguntzen deialdien markoaren barruan (2013ko urriaren 17ko Ebazpena), kontrataziorako laguntzen oinarri arautzaile eta deialdi honi dagokionez, honako hauei buruzko zinpeko adierazpena aurkezten da: itzultze edo zehazpen-prozedurarik zabalik ez edukitzea, zigor administratibo edo penalik ez edukitzea diru-laguntzarik lortzeko, edo zigor administratibo edo penalik ez edukitzea sexu bazterkeriagatik.

.....
jaunak/andreak, NAN zenbakiduna, bere izenean edo
.....helbidean dagoen, telefonoa duen eta
.....IFK duen enpresaren izenean (ordezkaritzarako eskumenak
adierazi),

Zinpean, zera dio:

1. EAEko edozein Herri Administrazioek edo bere Erakunde edozein Erakunde Autonomok emandako diru-laguntzaren edo laguntzaren bat jaso edo galtzeko prozesuren batean ez dagoela, laguntza horrek honen izaera berbera edo antzekoa izanik.
2. Enpresak ez duela zigor administratibo edo penalik diru-laguntza edo laguntza publikorik lortzeko, ez eta horretarako gaitasuna kentzen dion legezko debekurik ere.
3. Enpresak ez duela zigor administratibo edo penalik sexu bazterkeriagatik, ez eta, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, EAEko Herri Administrazioen diru-laguntza eta laguntzen deialdietara aurkezteko gaitasuna ukatzen dion zigorrik ere.

Lekua, data, sinadura eta zigilua.

III. ERANSKINA – AHAIDETASUNARI BURUZKO ZINPEKO ADIERAZPENA

Enplegua sustatzeko tokiko jardueretarako Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ematen dituen laguntzen deialdien markoaren barruan (2013ko urriaren 17ko Ebazpena), kontrataziorako laguntzen oinarri arautzaile eta deialdi honi dagokionez, ahaidetasunik ez egoteari buruzko baldintzak betetzen direla dioen zinpeko adierazpena.

.....
jaunak/andreak, NAN zenbakiduna, bere izenean edo
.....helbidean dagoen, telefonoa duen eta
.....IFK duen enpresaren izenean (ordezkaritzarako eskumenak
adierazi),

Zinpean, zera dio:

Oinarri hauek arautzen duten dirulaguntzarako aurkezten den kontratatua duen pertsonak ez duela enpresaburuaren, enpresa-zuzendarien eta sozietateen izaera juridikoa duten enpresen administrazio-organoetako kide diren pertsonen ezkontide, ondorengo eta gainerako senideekin bigarren mailara arteko odolkidetasunezko edo afinitatezko harremanik.

Lekua, data, sinadura eta zigilua.

IV. ERANSKINA – ZINPEKO ADIERAZPENA: DIRU-LAGUNTZAREN XEDE DEN KONTRATAZIOAK EZ DU GAIN-FINANTZAKETARIK.

Enplegua sustatzeko tokiko jardueretarako Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ematen dituen laguntzen deialdien markoaren barruan (2013ko urriaren 17ko Ebazpena), kontrataziorako laguntzen oinarri arautzaile eta deialdi honi dagokionez, aurkeztutako kontratazioek gain-finantzaketarik ez dutela dioen zinpeko adierazpena.

.....
jaunak/andreak, NAN zenbakiduna, bere izenean edohelbidean dagoen, telefonoa duen etaIFK duen enpresaren izenean (ordezkaritzarako eskumenak adierazi),

Zinpean, zera dio:

Bere eskaerako kontratazioari dagokionez (markatu X batekin egoki dena),

- Edozein administrazio publikok ematen duen eta helburu berbera duen diru-laguntzarik jasotzen ari ez dela.
- erakundeak (erakundea eta deialdia adierazi) euroko diru-laguntza eman diola.
- erakundeari (erakundea, deialdia eta eskatutako zenbatekoa adierazi) dirulaguntza eskatu diola, eta ebazpenaren zain dagoela.

Lekua, data, sinadura eta zigilua.